

## **2015EKO ZEMENDIAREN 10EAN EGINDAKO APARTEKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2015 zemendiaren 10ean, arratsaldeko 7:00etan

### **BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

### **Zinegotziak:**

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV) ez zan bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren aparteko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- TRAKZINO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GANEKO ZERGEA ARAUPETZEN DAUAN ZERGA ORDENANTZEAREN 6. ARTIKULUAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONARTU.**

Ametz Jauregizar alkate andreak honako hau adierazo dau:

*Gai hori urriko ohiko udalbatzarrean erabagi barik geratu zala eta, horren osteko bileretan gaia aztertu dogun ezkerre, hona dakargun proposamena ez da urrian aurkeztu genduana. Izan be, orduan proposatzen genduan zergaren tarifa guztiak gitxieneko tarifetatik portzentaje bardina gordetea, hau da, %70a; orain, barriz, dakargun proposamena hauxe da:*

*tarifa guztiak, urte biko epean, gitxieneko tarifetatik portzentaje bardina gordetea, baina %74,14a.*

*Edozelan be, gaur bozkatzea proposatzen dogun aldarazpenaren nondik norako hauxe da: 12 eta 13,99arteko zaldi-zergei jagoken tarifea %74,14a izatea eta beste tarifa guztiak, barriz, gitxieneko tarifetatik portzentaje bardina izatea, hau da %70a. Tarifok 2016ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko litzatekez.*

*Hortik aparte, eta gaur bozkatuko ez dogun arren, egin dogun bileretan hartu dogun beste konpromiso bat, hauxe da: datorren urtean tarifak aldarazotea, beti be 2017an indarrean egongo diran tarifa guztiak gitxieneko tarifetatik %74,14ko portzentajea gordeteko.*

Azalpen horreek emon ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse eta, horren ondorioz, EH Bildu eta BakioBaki talde politikoetako zinegotzien aldeko botoagaz (guztira 6 boto), Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

**1.- Trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergea arautzen dauan ordenantza fiskalaren 6. artikulua aldarazpena behin-behinean onartzea.**

<i>8 zerga-zaldi baino gitxiago</i>	<i>26,50</i>
<i>8-11,99 zerga-zaldi</i>	<i>71,57</i>
<i>12-13,99 zerga-zaldi</i>	<i>133,67</i>
<i>14-15,99 zerga-zaldi</i>	<i>176,69</i>
<i>16-19,99 zerga-zaldi</i>	<i>227,18</i>
<i>20 zerga-zaldi baino gehiago</i>	<i>277,66</i>

**B) Autobusak:**

<i>21 plaza baino gitxiago</i>	<i>174,93</i>
<i>21-50 plaza</i>	<i>249,14</i>
<i>50 plaza baino gehiago</i>	<i>311,43</i>

**C) Kamioiak:**

<i>1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria</i>	<i>88,79</i>
<i>1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria</i>	<i>174,93</i>
<i>2.999tik gora 9.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarria</i>	<i>249,14</i>
<i>9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria</i>	<i>311,43</i>

**D) Traktoreak:**

<i>16 zerga-zaldi baino gitxiago</i>	<i>37,11</i>
<i>16 - 25 zerga-zaldi</i>	<i>58,32</i>
<i>25 zerga-zaldi baino gehiago</i>	<i>174,93</i>

*E) Trakzino mekanikodun atoiak eta erdiatoiak:*

<i>1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria</i>	<i>37,11</i>
<i>1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria</i>	<i>58,32</i>
<i>2.999 kg-tik gorako zama erabilgarria</i>	<i>174,93</i>

*F) Beste ibilgailu batzuk:*

<i>Ziklomotorrak</i>	<i>9,28</i>
<i>125 cc arteko motozikletak</i>	<i>9,28</i>
<i>125 cc baino gehiagotik 250 cc arteko motozikletak</i>	<i>15,90</i>
<i>250 cc baino gehiagotik 500 cc arteko motozikletak</i>	<i>31,82</i>
<i>500 cc baino gehiagotik 1.000 cc arteko motozikletak</i>	<i>63,61</i>
<i>1.000 cc-tik gorako motozikletak</i>	<i>127,22</i>

2.- Aldarazpen espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartu beharko da.

3.- Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egutegiko urtearen 1etik aurrera sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko dau aldarazoten ez dan bitartean.

Bertaratutako EAJ/PNV udal taldeko lau zinegotziak abstenidu egin dira.

**2.- KONPROMISO HONEEK HARTZEA ERABAGI:****URI ETA LANDA ONDASUNEN KATASTROEN ERROLDAK EGUNERATU.****ZABOR-BILKETA ZERBITZUA EMOTEAGAITIKO TASEAREN EGITUREAREN ALDARAZPENA AZTERTU.**

Amets Jauregizar alkate andreak honako hau adierazo dau:

1.- Udalak doikuntza plangintza 2012ko abenduan onartu eban eta 2014an horren aldarazpena be bai. 2027ra arte indarrean dagoan doikuntza plangintza horretan jasoten da 2016 indarrean sartzeko zerga eta tasak igongo zirala. Urriko udalbatzarrean horreen ganean erabagirik ez hartzeko arrazoietariko bat izan zan udal gobernuaren konpromisoa, hauxe azaltzeko: zerga eta tasak ez igoteak doikuntzan plangintzan eta udalaren egoera ekonomikoan eduki daiken eragina.

Bada, EHBilduk aztertu egin dau gai hori eta ondorio modura esateko moduan dago udal aurrekontuko gastuen orrian izandako murrizketak kontuan hartuz, udal aurrekontuko gastu arrunten eta diru sarrera arrunten atalak parekatzeko traxzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergea aldarazotea nahikoa dala, eta, horrenbestez, ez dala beharrezkoa tasen eta gainontzeko zergen aldarazpena.

Ganera, doikuntza plangintzan 2016rako zergen eta tasen aldarazpenaren igoerea idatzita egonik, zalantzea izan genduan Udalari ekarri leiokezan ondorioez plangintzan idatzitakoa kontuan ez izateak, planaren edukia osotasunean bete arren. Hori dala eta, Foru Aldundiari kontsultatu geuntson eta erantzuna izan da berak plangintzaren edukia osotasunean beteten dan edo ez kontuan izango dauala, tasen aldarazpenari begiratu barik.

2.- Horrezaz gain, eta Ondasun Mugiezin ganeko Zergei jagokenez, urriko udalbatzarrean esan genduan, gure ustez, ezin dirala Uri eta Landa Ondasunei buruzko zergen zenbatekoak igo, Bakion onartuta dagozanak zenbatekoz handiak diralako. Baina gure artean bai hartu dogu konpromisoa zerga horreei buruzko errolda eguneratzeko, eta badakigu eguneratze horrek udalari diru-sarrera batzuk ekarriko deutozana, baina ekarpen hori zenbakiz zehaztea ezinezkoa da momentuz.

3.- Zabor bilketa zerbitzua emoteagaitiko tasari jagokonez, udal gobernuaren konpromisoa da tasearen egitura aldatzea, hau da, gaur egun, tasea lau tarifek osotzen dabe; tarifa bakotxa aplikagarria jakon jardueraz osoturiko atalari jagoko. Guztira, tasea lau tarifetan bananduta dago. Asmoa da atal gehiago sortu eta, ondorioz, tarifa gehiago.

Horrenbestez, aste honetako eguneneko Ogasun Informazino Batzordean aurreko atal bietan aitaturako gaiak mahai ganean ipiniko dira eztabaidatzeko eta, ondo bidean, konpromisoa hartzeko hemen esandakoa bideratzeko asmoz.

Gai horretaz aparte, Josu Garai zinegotziak galdetu dau Foru Aldunditik jasotako 500.000 euroko dirulaguntza ia noiz amortizatuko dan.

Alkate andreak dinotso aurten amortizatuko dala.

Josu Garaik galdetu dau be doikuntza plangintza gaurkotze ganean ia ezer dagoan.

Ametsek dinotso udal teknikoakaz atzo bertan berba egin ebala eta plangintza horrek 2019ra arte izan daiken bilakaerea kalkulatu dabela esan ebala.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 20:10ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria